



## EMAKUMEAK BEREN ESKUBIDEEN DEFENTSAN

Hogei urtetik gora dira Kongoko Errepublika Demokratikoa (K.E.D.) gerran dagoela. Mineralen kontroila bereganatzeko interes ekonomikoek elikatzen dute borroka hori<sup>1</sup>, eta emakumeak gatazka horren lakra jasaten ari dira, sexu-indarkeria armatzat erabiltzen baita, eta, hala emakumeak makurrarazi eta eskubiderik eta justiziariak gabeko bizitzara kondenatzten dira.

Huts egite larria da tokiko problema dela pentsatzea. Horrelako gatazken eta sexu-indarkeriaren eta baliabide naturalen kontrolaren arteko loturak ez du soilik K.E.D.-an eragiten<sup>2</sup>; aitzitik, nazioarteko dimentsioa du. Mineralean erauzketa kontrolatzenten duten mafiek nazioarteko merkataritza-sareen babesean jarduten dute, sare horiek erosten baitituzte mineral horiek jatorri-zuirtagirirk eskatu gabe. Arrazoi ekonomikoengatik egiten dute batez ere, eta begiak ixten dituzte lehengai horien atzean dagoen errealtitatearen aurrean, sare horientzat garrantzitsuena teknologia berrien industria bermatuko duten mineralak eskuratzea baita. Arazoaren ardura, beraz, nazioarteko komunitate osoarena eta gizarte osoarena da; izan ere, gu guztiok gara azken produktuaren balizko kontsumitzaleak.

**K.E.D.-an emakumeek asmo irmoa** dute egoera lazarri horri amaiera emateko, eta horretarako, **hainbat ekimen bultzatu dituzte, irtenbideak bilatzeko eta haientzat zentzu positiboan etorkizun hobea eraikitzeko helburu argiarekin**; izan ere, emakumeen etorkizuna hobea den heinean, **haien familiarena, komunitateena** eta, oro har, bizi diren herrialdearena ere hobea izango da. Arazoa bere osotasunean desagerrarazteko ari dira lanean, gerrako armatzat erabiltzen den sexu-indarkeria **agerian utziz**, egiazko **justizia** eta erreparazioa eskatuz, nazioarteko komunitatearen **atxikimendua** bilatz eta mineralen gatazkan komunitate horrek duen **erantzukizun bateratua** aldarrikatuz.

**Kongoko emakumeek eginkizun eta rol garrantzitsua izan dute K.E.D.-an bakea eta segurtsuna berriro ezartzeko borrokan.** Hainbat mobilizazio egin dituzte egoera okerrenean dauden pertsonai laguntzeko, eta, era berean, bakearen aldeko aldarria gidatu dute herrialdean bertan, eskualdean eta nazioartean. Modu aktiboa hartu zuten parte Gomako bake-elkarritzetan, Iparraldeko Kivu probintzian, eta elkarritzeta horiei esker, bake-hitzarmenak sinatu zituzten gobernuak eta talde armatuek. Aurrez, sexu-indarkeriei buruzko lege nazional bat egitearen alde jardun zuten emakumeek borrokan<sup>3</sup>.

**Congolese Women's Caucus** (Kongoko Emakumeen Taldeak) kolektiboa emakumeen ordezkari talde bat bildu zuen 2002ko Kongo-arteko Elkarritzetan, bi helburu nagusirekin: adierazpen ofizial bat lantzea eta **Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 1325 Ebazpena ezartzen lagunduko zuen ekintza-plan bat prestatzea<sup>4</sup>.** Talde horren lana lagungarri izan zen Kongoko emakumeek gizartearen alde egin zezaketen eta egin behar zuten lanari buruzko kontzientziazioa areagotzeko, eta emakume asko animatu ziren mobilizazioetara.

Afrikan beste inon baino handiagoa da **emakume elkarteen** kopurua K.E.D.-an. Elkarte horiek funtsezko lana egiten dute gatazkari konponbidea emateko ahaleginean, eta eremu seguruak sortzen dituzte, emakumeak babestuta eta erosoa senti daitezten horietan.

Eremu horietatik hainbat alderdi jorratzen dituzte, **emakumeek herrialde horretan dituzten arazoei erantzun osoa eman ahal izateko**. Hauek dira jorratutako alderdietako batzuk: **osasuna, arreta psikologikoa, hezkuntza, aholkularitza eta laguntza juridikoa, arazoak salatzea eta bistaratzea, gizartearen inplikazioa, iritzi publikoaren mobilizazioa**, etab.

Elkarte horien buruan emakume adoretsuak daude, emakume guztien eskubideen aldeko borrokan beren bizitza arriskuan jartzen duten ekintzaileak. Antolatutako emakume horiek borrokaren eredu dira. Emakume izatea beste inon baino gogorragoa den herrialdean, ahotsa goratu eta duintasuna eta bakea aldarrikatzen dute.

K.E.D.-ko emakumeek beren helburua lortzeko –bakea, justizia eta duintasuna eskuratzeko, alegia–, nazioarteko komunitate osoaren atxikimendu eta babes erabatekoa eta masiboa behar dute. Zer egin dezakezu zuk?

<sup>1</sup> Ikusi 01. fitxa

<sup>2</sup> Ikusi 01. eta 04. fitxak

<sup>3</sup> <https://www.diagonalperiodico.net/global/21079-16-dias-contra-la-violencia-sexual-la-republica-democratica-del-congo.html>

<sup>4</sup> Ikusi 04. fitxa

# JARDUERA PROPOSAMENA

## ROL PLAYING: EKINTZAILEEN ARTEKO ELKARRIZKETA

K.E.D.-ko emakumeen elkartea batzuen berri jakin ondoren, egin zure inguruko emakume ekintzaileen elkarteen mapaketa bat. Zer gainen inguruaren egiten dute lan?

Bi pertsona hautatuko ditugu: batek Kongoko ekintzaile bat ordezkatuko du, eta beste pertsonak, bertako ekintzaile bat. Beijing plataformaren agenda bateratua oinarritzat hartuta, galdera hauen inguruaren hitz egiteko eskatuko diegu: Agendako zer gai ari dira lantzen? Zer erantzun ematen ari dira beren testuinguru jakinetatik? Zer-nolako eragina dute haien erantzunek errealtitate globalean? Zer gertatzen da urruneko beste testuinguru batzuetan?

### Kezka berezia sortzen duten 12 arlo Beijingo Ekintza Plataforma



Emakumeak eta ingurumena



Emakumeak boterean  
eta erabakiak hartzeko jardunean



Neskak



Emakumeak eta ekonomia



Emakumeen giza eskubideak



Emakumeen hezkuntza  
eta gaikuntza



Emakumeen aurkako indarkeria



Emakumeak eta Pobreza



Emakumeen aurrerabiderako  
mekanismo instituzionalak



Emakumeak eta osasuna



Emakumeak eta gatazka armatuak



Emakumeak eta hedabideak

## ON LINE BALIABIDEAK

- 🌐 <http://www.peacewomen.org/>
- 🌐 <http://www.beautyinthemiddle.org/>
- 🌐 <http://4genderjustice.org/>
- 🌐 <http://www.unwomen.org/es/news/in-focus/csw59/feature-stories>
- 🌐 [www.beijing20.unwomen.org](http://www.beijing20.unwomen.org)
- 🌐 <http://www.unwomen.org/es/news/in-focus/csw59/feature-stories#conflict>
- 🌐 <http://beijing20.unwomen.org/es/in-focus/evaw1325>
- 🌐 <http://www.unwomen.org/es/what-we-do/peace-and-security1325+15>
- 🌐 <http://www.unwomen.org/es/news/in-focus/women-peace-security>

-en proiektu bat

lortzearen alde

Laguntzaileak:



Jesuitak bultzatutako Fundazioa  
[www.alboan.org](http://www.alboan.org)



[www.gatazkarikgabekoteknologia.org](http://www.gatazkarikgabekoteknologia.org)



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa



Donostia Udal  
Ayuntamiento de San Sebastián

Lankidetza Bulegoa  
Negociado de Cooperación